

Iritsi da

Astigarragako eta inguruko sagardozaleek antolatuta, atzo, urtarrilak 19, eman zitzaion txotx denboraldiari hasiera ofiziala. Udalaren laguntzarekin, biru egun lehenago egin zen komunikabideen aurrean aurkezpena. Prentsaurrekoaren ondoren, bazkaria izan zen Petritegi sagardotegian.

TXOTX!

ARMILU ELIZARAN

Irugarren urtean segidan, Astigarrako sagardogileek denboraldiari hasiera ofiziala emateko elkartu dira. Joan den asteazkenean, Udaletxeko Pleno aretoan aurkezpena egin zen komunikabideen aurrean. Atzotik eta udaberriko lehenengo eguzki printzak agertu arte sagardotegietako at-

te irekita egongo dira. /

Lehenbizikoz egin zen ekitalde ofizialean **Andoni Egaña** sportsolariari egokitu zitzaion txotxa irekitzea, joan den urtean, berriaz, **Jose Mari Bakero** futbolaria aukeratu zuten. Aurretik, berriro, futbolari bat, **Javier Clemente**, aukeratu dute sagardogileek hasiera ofizialaz arduratzeko. Sagardogileen ustetan, hasiera ofizialaren beharra oso nabarmena zen azken urteotan, txotxak lortutako ikusmina zela



ZELAIA

eta. Kontsumitzailea orientatzeko asmoz erabaki zen hau egitea, eta berrera jakinarazten zaio noiz basten den denboraldia.

Aukeratutako eguna San Sebastian aurreko ostirala da. Goiz samar da batzuen ustez, izan ere, baziren sagardotegia otsailean zabaltzen zuten sagardogileak, baina San Sebastian eguna errefentziazat hartu nahi denez, egun hori geldituko da gaurgero betiko.

Dena den, hasiera ofiziala baino lehenago ere izan zen sagardo berria dastatzeko aukerarik.

Usuario zaharrari eutsiz, **Gabon arratsaldean**, Astigarragako sagardotegi batzuek ateak zabalik izan zituzten. Obitura izan da beti Astigarragan auzokoak eta urtean zehar laguntzera etorritako jendea Gabon gauean sagardo berria probatzera etortzeko gonbitea egiteko. Sagardoa probatu ondoren, oso garatz, zortziak aldera, elkarri Gabon gau zoriontsua opa eta norbera bere etxera joaten zen. Hori izan da usuario zaharra.

Azken urte hauetan gauzak aldatu egin dira eta pasadizoan dagoen guztia sartzen omen da. Ondoko herrietara ere zabaldu da egun horretan sagardotegiak zabaltzeko usuarioa. Tradizioa aldatu eta zabaldu

Bº Martindegi, 29

Tel. (943) 55 58 51 - 55 02 81

HERNANI (Gipuzkoa)